



Batua eta zuberera : Euskalki baten dinamika

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Batua eta zuberera : Euskalki baten dinamika. nr, 2004, ville, Frantzia. artxibo-00000014v2

HAL Id: artxibo-00000014

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000014v2>

Submitted on 19 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

BATUA ETA ZUBERERA: EUSKALKI BATEN DINAMIKA

Nere mintzaldiaren asmoa da aztertzea sinkronian, 2004. urtean, zubereraren egoera nola den. Mintzaldiaren izenburuan erabili dudana **dinamika** hitzak hemen **bilakaera**ren adiera dauka. Euskalki horren barneko egitura eta kanpoko bilakaera, erran nahi baita ezagutza eta erabilera, gure aztergaiak izanen dira. Bigarren puntu horri buruz irakaskuntza arautua, 2-16 urte bitarteko ikasleekin, gure gai nagusia izanen da [\(1\)](#).

Euskalki hori gero eta gehiago mehatxatua da eta beraz interesgarria da ikustea zoin diren bere ezaugarriak, zoin diren beste euskara moten eraginak (gaurregun batua eta nafar-lapurtarrenak bereziki) eta bukatzeko bere geroa zoin izaten ahal litzatekeen asmatzea.

Hain txipia izanik ere Zuberoa, **Xiberoa**, bere 720 km²-ekin (Uhaitzaren ibarra eta beste hiru ibar txipiago) Euskal Herriko zazpi probintzietarik bat da. Hiru eskualdeak badira: Arbaila, Basabürüa eta Pettarra (ik. mapa erakusgarrian). Zuberoako lurralde historikoan 42 herri ziren: Mauleko kantonamenduan 19, Atharratzekoan 16, Donapaleuko kantonamenduan 7, Koldo Zuazorekin bereiziko ditugunak hizkeraren mailaz, eta Olorue-sartaldeko kantonamenduan, Biarnoko probintzian beraz, 1 Eskiula herria, hizkuntzaz zuberotarra [\(2\)](#).

`<center><table class="taula"><tr><td align="center"></td></tr></table></center>`

Era berean Zuberoako euskara, **xiberotarra**, betidanik egiazko euskalki batentzat onartua da bere biztanleria ahularekin ere: 1999ko eroldaketaren arabera 13.471 bizilagun badira (1975ean: 16.247 biztanle ziren, 1982an : 15.404 eta 1990ean: 14.377). Azpimarratu behar dugu beraz biztanleria hori gelditugabe gutitzen eta zahartzen ari dela. Azken mende honetan 10.000 bizilagun galduak izan ziren.

Ondoko egitarauari jarraikiko gatzazkio. Lehenik zubereraren ezaugarriez, euskalkiaren berezitasunaz mintzatuko gara, bigarrenik zubereraren egoera soziolinguistikoa eta zubereraren lekua, batuaren lekua Zuberoan kontutan hartuz, aurkeztuko ditugu, hirugarrenik euskalkia irakaskuntzan aztertuko dugu, eta ondorioztatzeko zubereraren geroaz hausnarketa batzu aitzinatuko ditugu.

****Zubereraren ezaugarri batzuz: euskalkiaren berezitasunaz****

Beraz orain adibide batzuen bidez beste euskalkien aurrean zubereraren berezitasuna ikusaraziko dizuet pixka bat, jakinez zuberotarrentzat beste euskaldunak **manexak** direla beren berezitasuna azpimarratzeko, beren euskara, **xiberotarra** [jibeotára] deitzen dutena, beste euskalkietarik bereizteko.

Ez nator deskribapen orokor bat egitera, euskalkia orai ezaguna delarik (ikus bibliografian Coyos, Peillen eta Zuazoren lanak). Bainan era orokorrean azpimarratu nahi dut ikerketa aintz egiteko direla oraino xehetasunetan ondo sartzeko, jakinik euskalki hori mehatxatua dela eta ez aski deskribitua. Berezitasun aipatuenak ez ditut aurkeztuko. Beste ezaugarri batzu erakutsiko ditut: fonologiak, izen-aditz komunztaduraz, sintaxi egitura zenbaitez eta alokutibotasunaz. Aipatuko ditudan ezaugarri horiek oso gutxitan dira eksklusiboak (beste inongo hizkerak ez dituenak). Koldo Zuazok dio: <i>«Asko eta asko dira euskalki batean baino gehiagotan betetzen diren ezaugarriak, euskalkien ohiko mugak gainditu eta oso silueta berezi eta bitxiak osatzen dituztenak»</i> (2003: 157). Eta egia da ezaugarri batzu Ipar Euskal Herri gehieneran erabiliak direla bainan Zuberoan maizeago, erran nahi du zubereraz ere direla, ezinbestekoak. Zuazok dio: <i>«Zuberoa, Nafarroa Beherea, Lapurdiko ekialdea, Erronkari eta Zaraitzu ekialdeko ezaugarrien multzoan sartzen dira»</i> (2003 : 195), bainan <i>«lantegia Euskal Herri osoa denean, ondo kontuan izan behar da gertakarien eremua»</i> (2003: 18). Horri buruz hona adibide bat. Euskal hizkuntzalaritzazko lanetan maiz idazten da Zuberoan *gizon* [gísun] ahoskatzen dela (adibidez ik. Zuazo, 2003: 35). Hori ez da egia osoa, [gísun] da ahoskatze hedatuena eta iduri du [gísun] Barkoxen eskualdean ez dela baizik ahoskatzen.

<i>«Oso berdina da euskara zuberotarra»</i>, Zuazok azpimarratzen du (2003: 28). Egia da bainan ama-hizkuntzazko hiztun zuberotarrek desberdintasunak ezagutzen dituzte eta lehen eleetan zubereraz mintzatzen dena nondik etortzen den asmatzen dute, edo bederen ohartzen dute beren hizkera ez dela. Hori errazki azaltzen da, dialektolariaren eta hiztunen ikuspegiak ezberdinak direlako. Gai hortaz Zuazok nabaritzen du: <i>«Gure artean bitxikeriek txunditu eta liluratu dute jendea, baina txikikeriekin eta txokokeriekin... sekula ere ezin izango dugu “zientziarik“ egin»</i> (2003: 14).

Zuberoan azpieuskalkiak badirela onartzen balinbadugu, lurraldea bi eremuetan zatitu dezakegu: Basabürüa hegoaldean, Atharratetik Santa-Grazia, Pettarra iparraldean, Mauleko kantonamendua. Gero ipar-mendebalean tarteko gunek bat Amikuzeko hizkerari hurbiltzen dena atera genezake (Zuazo, 2003: 33): ikus mapan. Pettarran berriz Barkoxe eta Eskiulako lurraldea bereiz genezake ere eta behar bada hego-mendebalean beste tarteko gunek bat Pagolaren inguruan (Pagola ez da agertzen mapan).

****Morfologiak****

Ez naiz luzez mintzatuko jakinez gauza asko aipatzea daitezkeela euskalki hori oroz gainera ahozko hizkera bat delarik, denbora gutiz geroztik zinez erakutsia dena eta beraz guti arautua. Laburduez adibidez Zuazorekin erran genezake <i>«...hizkera mintzatuan etengabe diren laburdurek sortzen dituzte hiztunek batak besteari ulertzeko eragozpenik larrienak»</i> (Zuazo, 2003: 160). Morfologia fonetikoaren alorrean gaude eta beraz Zuberoan egiten duten laburdura horiek ez ditut zehazki aurkeztuko. Hona lau adibide silabaren kontrakzioekin:

(1 a) <i>zaio</i> > [so] bilakatzen da, <i>ditit</i> «ditut (errespetuzko alokutiboarekin)» [tit], <i>eroririk</i> «erorita» [jójk] [r] bakuna galtzen delarik bi bokal artean, <i>üskara</i> «euskara» [yšká], etab...

Alderantziz aditz jokatuan errepikapen morfologiko batzu aurki ditzakegu, eta lehen pertsonaren bikoizketa edo hirukoizketa ohart daitezke. ****Aditz morfologia**** horren adibideak:

(1 b) <i>Deitak</i> «didak (zer niri hik)» [dejtádak] ahoska daiteke; <i>deitazü</i> «didazu (zer niri zuk)» [dejtadásy] entzun dezakegu. Azken aditz forma honetan lehen pertsona hiru aldiz kokatzen da. (ik. Coyos, 1999: 224).

****Fonologiaz****

Alor horretan bada zer erran, zuberera fonemaz biziki aberatsa delakotz.

- /y/ <i>ü</i> fonema maiz aipatua da. <i>«XIV. mendean bokal hori agertzen zaigu. Zubererak eta amikuzerak Gaskoniako okzitaniarari fonema hartu diote»</i> (Peillen, 1992: 252). Jakin behar da erabilia dela Lapurdiraino, han gutiago noski eta behar bada egiazko fonema ez izanez.

- /h/ <i>h</i> Zuazok begiemaiten du: <i>«Beste inon baino indar eta bizitasun handiagoa dauka hasperenak Zuberoan»</i> (2003: 36). <i>«Dakigun bezala “h” grafema Euskaltzaindiak onartua izan da, euskal alfabetoko hizki bat da. Zuberoan /h/ egiazko fonema bat da, frantsesan ez izanik ere, eta ahoskatzea ez da galtzen»</i> (Coyos, 2002: 207). Hobe ere **ur** adibidez [hur] ahoskatzen da. Bainan ez da sistematikoa: **haize** [ájse] ahoskatzen da, bai ere **hezür** «hezur» [ésyr] idatzia den **h** ahoskatu gabe.

Herskari hasperen ahoskabeak, /p^h/ **p**, /t^h/ **t**, /k^h/ **k**, interesgarriagoak dira. Duela hamar urte egiazko fonemak zirela erakutsi dut (3). René Lafonek eta haren ondotik Koldo Mitxelenak ez zuten ohartu herskari hasperen ahoskabeak egiazko fonemak zirela zubereran (4). Gutxienezko bikote batzu badira, bereziki duela guti mailegatuak izan diren hasperenik gabeko hitzei esker (Coyos, 2002: 208-209). Ikus adibidetegian:

(2) /p^halá/ **pala** (lanabes) ~ /palá/ **pala** (pilota);
/mót^ho/ **moto** «motto, mototx» ~ /motó/ «motozikleta»;
/k^haráty/ **karratü** «kerra, minkor» ~ /karáty/ **karratü** «karratu»;
/māk^háty/ **mankatü** «zauritu» ~ /mākáty/ **mankatü** «hutsegin».

- Kontsonantea + /h/ segidarekin, erran nahi du /nh/, /ñh/, /lh/, /rh/ bikoteekin, ez gara egiazko fonemekin /p^h/ *p,* /t^h/ *t,* /k^h/ garenean bezala. <i>«Kasu honetan azpimarratu nahi dut silaba egitura ez dela ongi aztertua izan. Silaba mozdura hasperena baino lehen egiten da eta beraz kontsonantea eta /h/ ez daude ber silaban.»</i> (Coyos, 2002: 208). Adibideak:

(3) *lano* «lanbro» [lánho] ahoskatzen da, *eine* «neke» [éñhe], *alor* [álhor], *elestatü* «solastatu» [elhéštáty], *ilun* (bat.) / *ülün* [ýlhyn], etab. Bainan /r/ + /h/ segidarekin, r hori batzutan ez da ahoskatzen: *aran* (fruitua) > *arhan* [áhan] *rh* > *h,* *soro* > *sorho* [šóho] *rh* > *h,* *eri* «behatz» > *erhi* [éhi] / [érhi] *rh* > *h,* *orit* «oroitu» *orhoitu* > [óhit]. [r] bakuna /h/ aurrenean denean galtzen da bi bokal artean balitz bezala.

- **/ñ/ eta /in/: fonema ezberdinak.** Era berean azpimarratu nahi dut zubererari /ñ/ sudurkari sabaikaria egiazko fonema bat dela. Euskal hizkuntzalariek orok hori ez dute oraino sinesten. Bokal ondoko [in] bikotea [ñ] ahoskatzen da Zuberoan. Bustidura hori, [in] > [ñ], aspaldin gauzatu daiteke. Adib.: *artzain* [artsáñ] ahoskatzen da eta ez [artsájn] ; *ohoin* (337) [uhúñ] eta ez [ohójn] edo [uhújn]; *üinürri* «xinaurri» (429) [yñhýri] eta ez [yjnyri] (Coyos, 2002: 209).

Beraz oposaketa fonologiko bat dugu zeren eta /ɲ/ fonema bat da zubererari, /in/ bi fonemen bikotea delarik :

(4) /mína/ *mina* «min (mugatua)» ~ /míña/ *miña (miñaberje)* «mahasti»; [hájna] *harena* (izenordaina) ~ [hájña] *hariña* «hondar, legar».

Txardina «sardina» [tʃardína] edo [ʃardína] ahoskatzen da eta ez [tʃardíña]; alderantziz *ñabo* «arbi» [ñábo] erraiten da zubereraz eta ez [nábo].

Era berean, /ɲ/ *il, ll,* alboko sabaikaria, /c/ *it, tt,* herskari sabaikari ahoskabea, eta /f/ *id, dd,* herskari sabaikari ahostuna egiazko fonemak dira euskalkian.

Deklinabideaz

Ezaguna da Zuberoan bizidunekin lekuzko kasuen formatako, inesiboa eta ablatiboarekin hain xuxen, bizigabeen forma erabiltzen dela; bainan -<i>gan</i> ekilako formak ez dira debekatuak ere.

(5) <i>Maddin / Maddietan (hobe) sinesten düt.</i> «Maddi(ren)gan sinesten dut».

Pertsona izenordainekin instrumentalaren forma berezi bat aipa dezagun ere: *nitzaz, zütaz* erraiten da adineko belaunaldietan *nitaz, zütaz* baino maizago.

****Izen-aditz komunztaduraz****

Zenbatzaileekilako egitura berezi bat aipatu nahi nuke. Zenbatzaile batekilako izen sintagma mugagabea denean, beraz izenak *-a* artikula hartzen ez duenean, adizki jokatuan plural markarik ez da agertzen:

(6 a) **Bi haur ikusi düt** (zub.) / **Bi haur ikusi ditut** (bat.).

(6 b) **Bi haurrak ikusi dütüt** (zub.) / **Bi haurrak ikusi ditut** (bat.).

Bigarren esaldian adizki jokatuako plurala markak izena mugatua dela erakusten duela erranen dugu.

****Aditz laguntzaileez****

- ****Izan / edün**** «*edun*» aditz laguntzaileez aipatu behar dugu Zuberoan **izan** aditza ez dela erabiltzen ahal **edun** aditz laguntzailearekin eta beraz datorren esaldia :

(7 a) *<i>Eskolak pisu handia izan du euskararen atzerakadan</i>*
(bat.)[\(5\)](#),

(7 b) *<i>Eskolak pezü handia üken dü eüskararen gibeltean</i>*
bilakatzen da (zub.).

- *<i>Ari-kilako</i>* egitura. Aspektu puntuala adierazteko: **ari** + partizipio burutu gabeko atzizkia **(-ten, -iten, -tzen)** aditzoinari + **izan** aditz laguntzailea erabiltzen da. Baina **edun** aditz laguntzailea ez da erabiltzen ahal **izan** aditzarekin. Adibidez erranen da:

(8 a) **Ebia ari da** (zub.) / eta ez **Ebia ari du** (bat.).

- *<i>Ari</i>-kin* zubereraz objektua absolutibo kasuarekin jokaten da mugatugabea baldin bada, baina edute genetiboarekin mugatua denean:

(8 b) **Ogiaren jaten ari da** (zub.) / **Ogia jaten ari da** (bat.).

Edute genetiboarekilako perifrasi hori ez da bakarrik erabilten Zuberoan; Ekialdeko ezaugarrietan sartzen dela erranen dugu.

- Amaierazko aspektu partizipoa / partizipio burutua: Ohartarazi nahi dut partizipio burutua gutiago erabilten dela beste euskalkietan baino. Adibidez *parka* [phárka] erraiten da eta ez <i>parkatu</i>, <i>heltzen da</i> «dator» eta ez <i>heldu da</i>, ...

Alokutibotasunaz

Atal hau bukatzeko alokutibotasunaz mintzo gaitezen pixka bat. Zubereraz lau modu baditugu: zuka, toka, noka gutiago erabilia dena bainan oraino bizirik leku zenbaitetan edo hobe esana familia batzuetan, eta noski neutrala. Elkarrizketetan, Zuberoan, adizki jokatuan marka alokutiboa beharrezkoa, ezinbestekoa da. *Zu* eta *hi* bigarren pertsona singularrarekilako formak alokutiboko formetarik bereiztekoak dira.

Nor-Nori-Nork forma alokutiboez Txomin Peillen euskaltzain zuberotarraren ohar hori aipa dezagun: «Egia da euskalki gehienetan zukako formak eta datibozkoak ezin direla bereizi –ez eta euskara batuan ere- zubereraren irtenbidea ez da, naski, batere kontutan hartu, ezen “deizü” (du zuri «dizu» (e.b.)); “dizü” (du zuka «du»?). Gero “izan” eta “eduki/ukan” en formak ez nahasteko ere berdin: “nindizün” (ninduen zuka); “nündüzün” (nintzen zuka)» (Peillen, 1992: 250-251). Peillenen adibideak :

(9 a) <i>deizü</i> «dizu (hark zuri)» / <i>dizü</i> «du (zuka)».

(9 b) <i>nindizün</i> «ninduen (zuka)» / <i>nündüzün</i> «nintzan (zuka)».

Beraz esan daiteke <i>Nor-Nori-Nork</i> saileko adizkietan agertzen -<i>e</i>- atzizki hori marka datiboaren dela pertsona atzizkiaren lekuaz gain.

Horiek ziren aurkeztu nahi nizekizuen zubereraren berezitasun zenbait, hizkuntzalaritza literaturan berezitasun ez hain aipatuena. Uste duzuen bezala hori hautaketa bat baizik ez zen, alor horretan badaiteke zer esan eta iker ere. Begira dezagun berezitasun horietarik batzu Zuberoatik kanpo hedatzen direla.

Zubereraren egoera soziolinguistikoa. Zubereraren eta batuaren lekua Zuberoan

Zati hori ez dut luzatu nahi bainan irakaskuntzaz mintzatu baino lehen pentsatu dut interesgarria litzatekeela ikustea laburzki zoin den zubereraren egoera soziolinguistikoa, eta era berean euskalkiaren eta batuaren lekua Zuberoan.

Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera

Hamabost bat urtez geroztik inkesta soziolinguistikoak egiten dira Iparraldean. Emaitzak ilunak ditugu, eta beraz ere Zuberoan. Hiztun kopurua gutitzen ari da eta ehunekoa ere,

familiako hizkuntzaren transmisioa ez baitabil ongi (<i>Euskararen Jarraipena III, 2001eko Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta</i>). Halere euskararen gainbehera gelditzen ari da gazteen artean eskolako irakaskuntzari esker. Baina hiztun berrien gaitasuna ez da hain gora.

Horiek dira Zuberoako azken emaitzak 15 urtetik gorako biztanleen hizkuntz-gaitasunaz: elebidunak % 56,1 dira, elebidun hartzaileak % 11,9 eta erdaldun elebakarrak % 32 (ikus taula) (6). 1987an elebakarrak % 27 ziren, beraz % 5 gutiago (Sü Azia: 26). Gipuzkoari konparatzean 2001ean elebidunak gutiago dira: % 48, elebidun hartzaileak ere % 9,5 eta erdaldun elebakarrak gehiago % 42,6.

2001eko Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
Zuberoa	% 56,1	% 11,9	% 32,0
Nafarroa Beherea	% 64,0	% 17,2	% 18,8
Baiona-Angelu-Biar.	% 8,8	% 8,3	% 82,9
Iparraldea	% 24,7	% 11,9	% 63,4
Gipuzkoa	% 48,0	% 9,5	% 42,6
Euskal Herria	% 25,4	% 10,6	% 64,1

Nafarroa Beherean elebidunak % 64 dira, elebidun hartzaileak % 17,2 eta erdaldun elebakarrak % 18,8. Baiona-Angelu-Miarritze hiri alkargoan non Iparraldeko biztanle erdia den elebidunak % 8,8 dira, elebidun hartzaileak % 8,3 eta erdaldun elebakarrak % 82,9. Iparralde osoan elebidunak % 24,7 dira, elebidun hartzaileak % 11,9 eta erdaldun elebakarrak % 63,4 eta Euskal Herrian % 25,4, % 10,6 eta % 64,1. Zuberoan, beraz, emaitzak onak lirarteke, baina azpimarratu behar da Zuberoan belaunaldi elebidunak adinekoak direla eta beraz belaunaldi gazteetan euskaldunak guti direla.

****Zuberera eta batua hedabideetan, bizi publikoan****

Frantses estatuaren onarpen juridikoaren faltaz erabilera publikoa ahula da Zuberoan, zerbitzu publikoetan ez da entzuten euskara. Hala ere, Zuberoako Herri Erkidegoak «mikro» seinaleztapen elebiduna hedatu du eskualde osoan, frantses bideko bide-seinaleak kanbiatezen ditu eta elebidunak kokatzen gero eta gehiago. Baina orokorrean zuberera ez da agertzen zerbitzu publikoen idazkietan. Euskara ofizialtasunik gabeko hizkuntza da Zuberoan.

Bizkitartean, duela hogei bat urte, irakaskuntzan eta irratigintzan sartu da zuberera eta harekin batua. Alor horietan bereziki, zubererak hitz multzo bat mailegatu ukan behar zuen. Ereku horiek berriak zirelako orduan eta euskalkia lexiko egokirik gabe zelakotz, euskara batuaren hitz ainitz hartu ditu. Frantsesaren eragina azpimarratzekoa zen ordu arte ahoskeran eta lexikoan orozgaintetik, biarnesarena bukatua zelarik. Bainan orai euskara batua da hitz iturri berria. Alderantziz iduri du batuaren eraginik ez dela syntaxian edo ahoskatzeko moldean, behingoz bederen.

Orain, beraz, zuberera non erabilia den ikus dezagun. Hedabidearen arabera ahozko, idatzizko edo ikus-entzunezko hizkuntza dugu, euskalki landua edo ez.

- ****Prentsan****: Zuberera biziki guti erabilia da prentsan. Baionako **Herria** astekarian eta Mauleko *<i>Autour du clocher – Zeinützülia</i>* parrokiako hilabetekarian Jean-Louis Davant beste euskaltzain zuberotarraren artikulua baditugu. Mauleko **Le Miroir de la Soule** hamabostekarian Ximun Peyranen artikulua bada, eguneroko zubereraz frantses ortografiarekin idatzia. Besterik ez.

Pika haurrendako hilabetekaria badugu, Maulen egina, Iparraldeko bi euskalkiz idatzia, beraz zubereraz eta nafar-lapurtarrez. 80 bat zubererazko ale saltzen dira. **Nanai** beste haurrendako hiru hilabetekaria batuaz idatzia da.

- **Irratigintzan:** Euskal irrati bat baizik ez da, **Xiberoko botza** irrati pribatua, 1982an elkarte batek sortarazi zuena. 1996an adibidez zuberera ulertzen zuten % 55ek irrati hori entzuten zuten. *<i>Xiberoko botza</i>*ri esker zuberera Zuberoatik kanpo ere entzuten da Euskal Irratiak alkarteak sortu egituran: aste egunetako arratsaldeko berriak *<i>Xiberoko botza</i>*ren berriktariak aurkezten dute Iparralde osoan, goizekoak Garaziko *<i>Irulegiko Irratia</i>*k eta eguerdikoak Baionako *<i>Gure Irratia</i>*k ematen dituzte. Berriktarien zubereran batutiko hitz zonbaitek frantses hitzen lekua hartzen dute. Adibidez, zuberera landuan, batuazko **konpondu** aditza erabil daiteke frantsesari mailegatua den **arrandjatü** baino, edo zubereran ditugun **antolatü** baino.

- **Telebistan**: *<i>«Oso toki guti du zubererak, eta ulertzeko da urritasun hori: elkarrizketa bakan batzuk, emankizun berezi zenbait, pastoral batzuen errepikapena»</i>* (Davant, 1996: 533), hori orozgaintetik *<i>ETB 1</i>*en eta zenbaitetan Frantziako hirugarren katean, *<i>Euskal Herri</i>* eguneroko emankizunean.

- **Literaturan**: Jean-Louis Davantek ohartzen du: *<i>«Konparazione, bere txikian, literatur eremu emankorra da Zuberoa. Alor emankorra pastoralgileek ontzen dute... Literatur idazle puntakoak ere badira Zuberoan...»</i>* (2000: **Argia** On Line). Bainan duela hamar urte jadanik idazten zuen: *<i>«Gogorra baldin bada euskal idazlearen eginbidea, zer erran zuberotarrenaz? Norentzat idatzi behar ote du? Zein euskalkietan? Zubereraz soil-soilik, batzuen iritziz. Baina zenbat gara euskaraz irakurtzen dugun zuberotarrek?»</i>* (*<i>Argia</i>*, 1993). Jakin behar da euskaldun zuberotar kopurua txipia baldin bada ere, irakurlearena txipiagoa dela.

- **Liturgian**: Davantek dio: *<i>«Mezaren bizkar-hezurra Batutik hartua da hitzez-hitz, Zuberoako eta fonetikari egokituz... Mezako «Canon» hortarik kanpoko, ohiko*

zuberera klasikoan emaiten da... Kateximarik ez da gehiago euskaraz egiten Zuberoan... Zuberera hiltzen du frantsesak, ez Batuak» (1996: 531-532).

****Batua**** beraz ez da hola hola zuzenki sartzen Zuberoan edo guti.

- **Prentsan**: **Berria** egunkariaren hedapena txikia da. **Xiberoko botza** irratia esker Zuberoako entzuleak nafar-lapurterra egunero entzuten du, batua baino maizago, bainan batzutan Hegoaldeko berrikerari bat edo galdekatu bat entzun daiteke ere. Telebistan: *<i>ETB 1</i>*-en batua ulertezina da adineko jendearentzat eta eskolatu ez direnentzat, erran nahi du zuberotar gehienarentzat. Bainan iduri luke jendeak gero eta gehiago so egiten duela, pilota partidei esker bereziki.

****Zuberera eta batua irakaskuntzan Zuberoan****

Datorren atalean zubereraren irakaskuntza arautua aurkeztuko dizuet. Orain seinatu nahi nizueke laburzki zuberera eta batuaren lekua irakaskuntzan. Zuberera ama-eskolan, lehen mailan, Zuberoako kolegioan klase elebidunetan eta gau eskolan ikasten eta erabiltzen da. Batua eta nafar-lapurterra Zuberoatik kanpoko kolegioan, lizeoan eta Baionako Fakultatean Euskal ikasketetan ikasten dute Zuberoan egoiten ez direnak. Alabainan Zuberoan ere erakasle batzuk batua sarrarazten dute ikasleen euskara gaitasunaren arabera, zuberera ongi menperatzen baldin badute.

****Euskara eskolan:**** Euskalkia erabilia da Zuberoako bi ikastoletan (D modeloa, 2 ama-ikastoletan eta lehen mailako ikastolan), klase elebidunetan (B modeloa) eta hastapen modeloan. Bainan erran behar da euskara edo euskaraz ikasten duten haur ehunetako txikia dela, emendatzen bada ere.

****Helduei irakastea**** *<i>Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea</i>*ren Zuberoako adarra 1983an sortua da. Ikasle helduen kopurua 60 batekoa da. Zuberera erakasten da. Udan ikastaldi bat zubereraz antolatzen dute ere urtero.

Tresna orokorrak: hiztegiak, gramatikak...Aita Junes Casenave-Harigileri esker hiztegi zuberotar gaurkotuak baditugu, **Frantses-Eüskara** eta **Eüskara-Frantses**. Ohar bat hiztegi horiei buruz: batuazko hitz anitz sarrarazi ditu egileak eta frantses edo bearnes hitz batzu baztertu ditu aspaldin mailegatuak izanik ere. Hitz zenbait ere asmatu ditu. Beraz ez dira hizkuntzalarienganako hiztegiak, zuberera hutsezko hiztegiak ez da.

Junes Casenave-Harigilek zuberera ikasteko metodo bat egin du ere, *<i>Xiberon Euskaraz – Méthode de Basque souletin</i>* deitzen dena.

Jüje Etxebarnek gramatika bat egin du, **Zubereraren gramatika**, interneten aurki dezakezuen.

Ikas Euskal Pedagogia Zentroa–Xiberoko ordezkari Lapurdin Uztaritzeko Ikas erakundea dokumentazio zentro bat da: 14 000 bat liburu, bideo, CD-Rom, aldizkari eta beste badauzka. Ikasleentzat formakuntza eta informazio saioak antolatzen ditu, baina orozgainera euskarazko ikastresnak sortzen ditu edo euskaratzen, argitaratzen eta eskoletan hedatzen. Pedagogia tresnen edukia Frantziako Hezkuntza nazionalaren ikuskeriek onetsia da eta testuak euskaltzainek zuzenduak dira. 1996az geroztik Ikas zinez hasi da argitaratzen eta bereziki bizpalau urtez geroztik. Hiru zubererazko liburu argitaratu ditu eta bere webgunean euskalkiazko dokumentu batzuek aurkezten ditu.

Ordezkari bat idekia izan da ikastaro honetan Zuberoan denbora erdiz; gazte enplegu batek kudeatzen du. Frantziako dokumentazio zentro nazionalak ez zuelakotz bere gain hartu, Ikasek deliberatu du egitura arin hori sortaraztea.

****Unibertsitatean:**** *<i>«Unibertsitatean hein bat mugatua da zubererak har dezakeen tokia, orokorki, idazle batzuen testuetan editein eta kokatzen baita, edo zuberotar xahar zenbaitez egiten diren grabaketetan. Baina bere tokia badu dialektologian eta antzerkian, pastoralari esker»</i>* (Davant, 1996 : 532).

****Bertsolaritza eskolak:**** Bertsularirik ez da gaurregun Zuberoan baina azpimarratu behar da eskola berri bat edikia dela aurtan Sohütako ikastolan haurrentzat eta heldu zenbait hasi direla ere Urdiñarben.

****Zubereraren ortografiak:**** 1979an Euskaltzaindiak zion: *<i>«Euskara hizkuntza bakarra baita, ez hizkuntza asko, eta hizkuntza horretan ortografia bat bakarra behar dela, bai euskara batuan eta bai euskalkietan»</i>* (1979, 104. orr.). Zuberotarren ortografia ez da sekula finkatua izan mendeen zehar eta Euskaltzaindiaren adierazpena jarraituz batuaren grafia duela guti onartua izan da. Nere *<i>«Zubereraren idazkeraz: fonetika, fonologia eta ortografia»</i>* artikuluan erakusten dut zoin diren ahoskeraren eta idazkeraren zuberotar arautuaren arteko loturak. Onartua izan den ortografia egokiago litzatekeela idazten dut zubereraren fonologiaren eta fonetikaren ezaugarriak kontutan hartuz. Baina, hala ere, ortografiaren finkatze hori xantza bat dela azpimarratzen dut. Davantek dio: *<i>«Ni aldiz beldurtzen hasi naiz grafiaren eragin entzunez ahoskeran, irratietan, antzerki eta kantuan, idatzia den bezala ahoskatzen baitute batzuek, zubererak duen fonetika berezia zaurituz»</i>* (1996: 533) eta nik gaineratzen dut: *<i>«Hizkuntzen ortografia ez dela osoki fonetiko edo fonologikoa ezaguna da. Baina ortografia bakoitza hurbiltzen da guti gora behera hizkuntzaren fonetikatik (edo fonologiatik... ortografiak eta ahoskatzeak lotuak baitira, nahi ala ez. Eta ortografiak ez baldin badu ahoskeraren manatzen, eragintzen du halere. Ber denboran ere ez dugu ahanzi behar idazkeraren ahosko mintzairatik etortzen dela eta ez kontrakoa»</i>* (Coyos, 2002: 202).

****Beste hizkuntzen, batuaren eta nafar-lapurtarren eraginaz zubereraren****

Jean-Louis Davantek zubereraz hori idazten du zuberotarrei buruz: <i>«Jente ezjakinak üsü algarren etsai bezala ikusten dütü Xiberoko euskara eta Batua, hau espainola dela erranez gaineala. Bena espainol hizkuntza, "castellano" delako gaztelania da... Gibel ari da Züberoako euskara. Bena ez dü Batuak ehaiten, frantsesak dü hiltzen eta ehortzen»</i>, (<i>Herria</i>, 1999).

- Maiz aipatzen da biarnesaren eragina, XIV.etik XV. menderaino gaskoina Zuberoako administrazio hizkuntza idatzia zelarik. Eta beraz hitz asko mailegatu dio zubererak. XIX. mendean ere zuberotar gazte asko Biarnora joaiten ziren ofizio bat ikastera edo sasoiko lanarengatik, eta beraz biarnesera ikasten zuten ere. Biarnesa azpieuskalki gaskoina da eta gaskoina okzitanieraren euskalki handienetarik bat, mendebalekoa.

- Gaztelaniaren eragina. Bainan azpimarratzekoa da ere Peillenekin gaztelaniarena: elizako hiztegian (<i>misterio, pagano, salvatore</i>, etab.) eta bai ere birauetan (<i>dios, cochino, coño</i>, etab.). Peillenen ustez: <i>«Ez da harritzekoa... bostehun urtez zuberotarrek Andaluziaraino lan migraketak egiten zituzten eta hizkuntza nahasten»</i> (2001: 30). Beste norabidean ere Aragoitik, Erronkaritik, jende anitz, bereziki emazteak, urte oroz etortzen ziren XIX. mendean espartin egiteko aroan. Eta beraz horietarik batzu Maulen kokatu dira bizitzeko, bereziki Maule gaine auzoan. Peillenen ustez <i>«5.000 hitzatik gutxi gorabehera 900 okzitanieratik eta 600 gaztelaniatik hartuak lirateke, gero beste asko latinetik, aragoieratik, frantsetik...»</i> (Peillen, 1992: 270).

- Frantsesaren eragina. Gero frantsesak bearneseraren lekua hartu zuen eta, XX. mendean, bizi modernoarengatik zubererak hitz multzoa behar ukan zuen eta ondorioz hitz teknikoak frantsesari mailegatu zituen. Ber denboran, asmagarria den bezala, teknika eta ofizio zahar eta galdutakoen hitzak desagertzen ziren eta beraz bearnes hitz anitz galdu dira. Peillenek ohartzen du: <i>«Gaztelaniazko maileguak nahikoa zaharrak izanki, hizkuntzan aski ongi sustraiatuak dira, baina okzitanierazko multzo ugariatik asko gure egunetan galdu dira»</i> (1992: 251). Frantsesa sartzen zen eta oraino ere «code-switching» jokabideari esker. Esan nahi du eguneroko mintzairan batua ikasi ez duen hiztunak frantses hitz teknikoak errazki sarrarazten dituela.

- Batua eta nafar-lapurtarren eragina. Bainan 1970-1980 hamarkadetan euskararen berpiztatze nahi berri sortuarekin zuberera euskara batuari hasi zen mailegatu. Eta beraz zubereran sartu den azken hizkuntza beste euskara mota bat da, beste gisaz errana Zuberoako euskarak euskara batuari mailegatu dio. Kultura zuberotarra biziki aberatsa da biztanleriari konparatuz eta zubererak bere lekua badu pastoralen testuetan, kantuetan eta ikusgarri batzuetan. Bainan idazle zuberotarrei esker batua idazki zuberotarretan sartzen da, denek batua eta zuberera menperatzen baitituzte, eta hori zenbait aldiz ohartu gabe ere, idazki mota oroetan: pastoraletan, kantuetan, olerkian, pedagogia liburuetan, etab.

Zuberoako euskaldun xumeei testu horiek arrotz iduritzen zaizkie guti gora behera, euskara irakurtzen ez bait dakite edo/eta batua ez bait dute ulertzen ere. Euskaltzaindiak

duela guti hori esan du, adineko zuberotarrei ongi aplikatzen dena: <i>«Hala ere, hiztun batzuek... baztertua ikusten dute euren burua, bizi duten euskalkia euskara batutik urrun dagoelako; baina ez dute bazterturik sentitu behar. Euskaltzaindiak, behintzat, ez du horrelako bazterkeriarik nahi; baizik eta nahi du euskaldun bakoitzak bere euskararekin bat egitea eta era berean, euskara batuarekin bat egitea, batua harturik goi mailako erregistrotzat gainerako euskaldun guztiakin harremanak izateko»</i>, eta geroago jarraitzen du erranez : <i>«Euskaraz mintzo diren hiztunen egoera desberdinei begirunea zor zaie, hiztun horiek euskalkiak erabili nahiz euskara batua erabili»</i> (2004, www.euskaltzaindia.net). Ikusmolde hori egokia iduritzen zait eta beraz euskalkiak ikasteko, irakasteko, zaintzeko dira hori belaunaldien arteko euskarazko loturak eta tokiko harremanak zaintzeko.

<i>«AEK-ren eta ikastolaren bidez, baita ere Xiberoko Botzaren eraginez euskara estandarren ehun bat hitz euskalkian sartu dira (albiste, dantzaldi, ikastola, iragarki, irratia...)></i> dio Peillenek (2001 : 30). Nere ustez, orain, ehun bat baino gehiago dira hitz mailegatuak, bereziki irakaskuntzarenegatik. Zenbat aldiz bikoteak baditugu : <i>telea</i> eta <i>telebista</i>, <i>radioa</i> eta <i>irratia</i>, <i>jinkoa</i> eta <i>jaungoikoa</i>...

Davantek erraiten duen bezala: <i>«Batua ere behar dugu, zazpi euskal herrietan algar entelegatzeko, baita hizkuntza egokitü baten ükeiteko, zehetarzün argi eta segur batekin, bereziki zientzia-jakintzetan eta legegintzan, züzenbidean, hor düdarik ez beita behar hitzetan. Hirugerren helbüü bat ere badüü: goi mailako literatura baten ardiestea, eüskalki güzien ahalak algarrekin bildüz... Xiberokoari zer ekarten deion Batuak: - itsasoko hiztegia (arrainena eta abar...), hiriko hiztegia, jakintza berrien eta teknika berrien hiztegia, kontzeptü hanitxen hiztegia»</i> (1999, <i>Herria</i>).

- ****Zubereratik euskara batua.**** <i>«Denbora berean zubererak euskara batuari hitz batzuk eman dizkio hala nola “aholku” (kontseju), “zinegotzi”, “jesan” (dirua mailegatu)></i> dio Peillenek (2001: 29). Davantek ere: <i>«Batuari zer ekarten deion zübererak - atzizki elibat: GIA (ikasgia, sargia), GOA (nausigoa) -mendiko hiztegi aberatsa, bereziki basa ihizeen izenekin- aditz forma elibat, besteek galdü dütüenak, bereziki geroaldian (date, dateke) baita potentzialean (niro, nitiro)...></i> (1999, <i>Herria</i>). Hitz zahar batzu begiratu ditu ere zubererak. Adibidez: <i>igaran</i> eta ez <i>pasatu, heltü</i> eta ez <i>arribatu</i>, <i>eho</i> «matar» eta<i>hil</i>«morir» bereziak dira...

****Zuberera irakaskuntzan: irakaskuntza arautua****

Orain gure gai nagusia aztertzen ahal dugu, erran nahi du beraz "irakaskuntza arautua", jakinez zubereraren jarraipena segurtatzea eskolaren gain da neurri gero eta handigoan, euskararen transmisioa kasik desagertua delakotz hiriguneetan bereziki eta euskararen presentzia Zuberoako bizi publikoan ahula dela. 1979an Euskaltzaindiak zioen: <i>«Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz»</i> (1979, 103. orr.). Eta beraz zubereraren irakastea ez da joaten Euskaltzaindiaren egitatearen aurka.

****Irakaskuntza euskara salbatzeko oraiko tresna hobereena****

Azken inkestaren emaitzak ikusiz eta beraz euskararen egoera nola den ohartuz, <i><<Iparraldean eskoletako euskal irakaskuntzak inoiz ez bezalako garrantzia dauka. Alabaina, 2001eko inkesta soziolinguistikoak erakusten digu familia bidezko transmisioa ez dela ongi egiten. Beraz, eskolaren gain da neurri handi batean euskararen jarraipena segurtatzea. Gainera, haurrak gero eta gehiago bi urtetan sartzen dira ama-eskolan, eta adin horretan lehen hizkuntza ez da oraino behin betiko finkatua>></i> dio Bachocek (Bachoc etab., 2003: 49). Ingurumen frantses batean euskaraz mintzatzen direnak gero eta gutiago dira.

Era berean Mixel Estebanek dio: <i><<Jakinez familietan zegoen euskararen transmisioa ahultzen ari dela barnealdean [eta Zuberoan bereziki] eta kasik desagertua dela hiriguneetan, jakinez ere euskararen presentzia sozial arloetan nahiko ahula dela euskararen aterabide nagusia eskolan dago>></i> (Bachoc etab., 2003: 54). Bainan dakigun bezala eskolak euskararen jarraipena eta geroa ez ditu berak salbatuko, jakinez ezagutza nahi ala ez erabilera ez dela.

Hiru sareak – Lau ereduak

Lau irakaskuntza eredu baditugu Iparraldean eta beraz Zuberoan ere: murgiltze eredu, elebitasun eredu, hastapen eredu eta frantses eredu, eta hiru sare badira. Frantses eredu hau hedatuena da, bainan elebitasun eredu eta hainbatean ere murgiltze eredu emendatzen ari dira. **Seaska** da ikastolak kudeatzen dituen elkarte, **Euskal Haziak** da eskola giristionetan elebitasuna sustengatzen duena eta **Ikas Bi** eskola publikoko gurasoen elkarte.

Ama-eskolak lau urte irauten du, 2 urtetatik 6 urtetara; gero 6 urtetatik 11 urtetara lehen maila badugu. Ama-eskola lehen maila honetan sartzen da. Ondotik 2. mailak lau urte ere irauten du kolegioan 16 urtetara.

Beraz euskararen irakaskuntza eta bai ere euskarazko irakaskuntza emendatzen da Iparraldean, hastapen eredu baztertuz, bainan <i><<ohargarri da lehen mailan lau haurretarik hiruek ez dutela oraindik euskarazko irakaskuntza izpirik>></i>, dio Bachocek (Bachoc etab., 2003: 50). Murgilbide ereduak haurren kopuruaren % 5,5a dauka eta elebitasun ereduak % 16,85a. Orokorki murgilbide eta elebitasun ereduak Iparraldeko haurren % 22,35 eskolatzen du. Erran behar da Frantziako lurraldeko hizkuntzen irakaspenetarik ehunetako handiena dela. <i><<Azken 7-8 urtetako kopuruaren eboluzioa kontuan hartuz, elebitasun ereduak kasik 6 puntu irabazi ditu (elebitasun ereduak irabazi duena hastapen ereduak galdu du)>></i> (Bachoc etab., 2003 : 50).

Emaitza orokor horiek guti gora behera berak dira Zuberoari so eginez. Orain banaka Zuberoako lau eredu en egoera aurkezten dizuet.

```
<center><table class="taula" border="3" cellpadding="2"><tr><th>2003-2004
ikasturtea</th><th>Murgiltzea</th><th>%</th><th>Elebiduna</th><th>%</th><th>Hasta
pena/opzioa</th><th>%</th></tr><tr><th>1. MAILAN</th><td
align="center">79</td><td align="center">8</td><td
align="center">151</td><td align="center">15</td><td align="center">500</td><td align="center">49</td></tr><tr><th>2.
MAILAN</th><td align="center">0</td><td align="center">0</td><td
align="center">30</td><td align="center">5,26</td><td align="center">132</td><td align="center">23,15</td></tr></table></center>
```

****Ikastolak: D modeloa****

Lehen ikastola 1972an Maulen sortua zen 12 haurrekin eta ondotik Basabürüko ama-eskola 1979an.

- **Ikasle kopuruak ama-eskolan eta lehen mailan**

1993-1994	ikasturtean Maulen:	61	– Atharratzen:	8	= 69
1998-1999	ikasturtean Maulen:	68	– Atharratzen:	12	= 80
2000-2001	ikasturtean Maulen:	67	– Atharratzen:	15	= 82
2003-2004	ikasturtean Maulen:	64	– Alozen:	15	= 79 (≈ % 8)

Zenbakiak egonkorak dira. Zuberoako haur kopuruaren % 8 dira guti gora behera murgiltze eredu en.

Zuberoan ez da Seaskako kolegiarik eta beraz bigarren mailan ikasketak murgiltze eredu en jarraiki nahi dituztenek Donaixtiko Manex Erdozaintzi Kolegiora joan behar dute, Nafarroa Behereara beraz, baina Zuberoatik ez hain urrun. Eta han ikasketak batuaz eta nafar-lapurtarrez egiten dituzte. Baina haur guti joaiten dira harat: aurten adibidez bat bera joaten da Donaixtira eta 6 Mauleko kolegio publikoko klase elebidunera. Zuberoako demografia eta bai ere herri bakoitzaren eskolako politika ikastolaren aurka doaz, murgiltze sistema hautatzen duten haurrek herria uzten baitute Sohütara joiteko. Gero Iparraldeko euskarazko lizeo bakarra Baionan da, beraz urrunago.

- ****Murgiltze eredu en ikastoletan**** Ama-eskolan euskaraz dena egiten da (2etatik 6 urtetara). Lehen mailako lehen urtean irakurtzea euskaraz ikasten dute eta bigarren urtean frantsesaren sartzea da, elebidun orekatua izateko eskolako lehen mailako azken urtean, kolegioan sartu baino lehen. Zuberoan zuberera baizik ez dute ikasten ama-eskolan eta bai ere lehen mailan. Eta hori biziki inportanta iduritzen zait belaunaldi euskaldunen arteko arroi la ez zilatuz. Lau lanpostu eterdi dira eta irakasleak denak zuberotorrak dira. Irakasle ez diren langileak ere zubereraz mintzatzen dira.

- ****Murgiltze ereduaren garapenari oztopo bereziak**** Murgiltze ereduak ez da oraino osoki ezagutua Frantziako eta eztabaida garrantzia izan zen 2002. urtean. Azaroaren 29an Frantziako Estatu Kontseiluak britaineraren irakaskuntzaz murgiltze ereduaren legekanpokoak zela deliberatu du eta ondorioz Estatuak erran du ez zuela onartzen ahal eredu hori hezkuntza publikoan sar dadin, Britainian ikastolak kudeatzen dituen Diwan elkarteak galdatzen zuen bezala.

Ikastolak beraz eskola pribatuak dira, Frantziako hezkuntza nazionalarekin kontratu pean direnak. Horri esker erakasleen hilabetsaria Estatuak ordaintzen du, 1994az geroztik. Bainan eraikuntzak, gelak, pedagogia tresnak, erakasle ez diren langileak ikastolaren, Seaskaren gain dira. Adibidez Sohütako ikastolako elkarteak irakasle ez diren langileen lau hilabete-sarietarik biga beregain hartu behar ditu.

Herriko etxeek diru laguntza eman dezakete, bainan 1851eko lege batek, Falloux legeak, debekatzen du erakunde publikoek eraikuntzen gastuetarik % 10a baino gehiago eman ditzaten. Horrengatik Iparraldeko ikastola berriak Eusko Jaurlaritzaren sostenguekin eraikiak dira bereziki eta bai ere Euskal Herri osoko jendearen diru laguntzarekin.

Zuberoan material baldintzak iragankorrak dira: Sohütako elkartea etxegintzaren jabea baldin bada, 1997an ikastola berri bat eraiki zuten Mauleko gela zaharrak utziz, Basabürüko ikastolak Atharratze ondoan den Alozeko tokia datorren ikasturteko utzi behar du, iaz egin zuen bezala, oraiko egoitzaren jabea ez delakotz. Zuberoako podere publikoek erran dute lagunduko dutela beste egoitza bat aurkitzera.

****Irakaskuntza elebiduna: B modelo****

Klase elebidunak izan ziren Hezkuntza nazionalaren eta beraz Estatuaren erantzuna garatzen ari ziren ikastolei. Bestenaz errana ikastola pribatuak ez baldin baziren eraiki publikoko klase elebidunak ez zituzten asmatuko edo ez ziren hola garatuko. Modelo hori gero eta gehiago azkartzen da eskola publikoan eta erran behar da Frantziako Hezkuntza nazionalak ez duela gurasoen galdera oroiei ihardespenik emaiten.

****Lehen mailako klase elebidunak publikoan****

****2003-2004**** Kopuru orokorra 151 haurrez da Zuberoan, 12 klase, 6 erakasle zuberotarrekin. Barkoxe: 24 haur (Zuberoako lehen klase elebiduna, 13 urtez geroztik), Maule: 57 (Pean 32 – Gainen: 25), Idaunze: 32, Urdiñarbe: 8 eta Atarratze: 30. Ehunetakoa \approx % 15 nonbait hor da.

1969az geroztik eskola giristinoek irakaskuntza elebiduna eskaintzen dute Iparraldean. Bainan Zuberoan aurrez ez dute klase bat zabaltu eskola katolikoan Altzain: 7 haurrekin eta irakasle batekin.

****Bigarren mailako klase elebidunak publikoan****

****2003-2004**** Mauleko kolegioan klase elebidunak badira: 6.ean: 9 haur, 5.ean: 10, 4.ean: 3, 3.ean: 8, 30 haur orotara. Bi erakasle badira, bat denbora osoz eta bestea erdiz.

Bigarren mailan, kolegioan beraz, gai kopuruak hamar bat gai dauzka. Eta erran behar da oren kopurua ez dela egiazki orekatua, frantsesezko kurtso gehiago badira euskarazkoak baino. Kolegioan euskarazko 6 edo 7 oren astean baizik ez dituzte. Ikasgaiak bi horiek dira: bata euskara (3 oren) eta bestea historia, geografia eta herritar heziketa (3 + 0,5 oren). Eredu hori Mauleko Argia kolegio publikoan 2000. urtean hasi da. Ez da beste nehon egiten. Hori da haur kopurua: orotara 570 ikasle badira Zuberoako kolegioetan eta Mauleko klase elebidunetan 30. Ehunetakoa biziki apala da: % 5,26.

****Hastapen ereduak : inimizioa edo opzioa****

Bi ibilkari ere badira Zuberoan lehen irakaspena emaiten dutenak. Ikasleek normalki 2 oren astean badituzte, bainan gero eta maizago oren bat emaiten da. Hona bi ibilkari horietarik bat den Mixel Etxekopar musikarari ezagunak erran didana: <i>«Aurten 320 haur ikusten dit! Eta beste ebilkariak 180 nonbait hor, biga beikira aurten sail hortan Xiberoan. Kalkula ontsa eginez erraiten ahal dizügu 500 haur elkiko dela eskolatik euskara ikasi gabe! Behar ere güneka euskaldün zombait badizügu bena gero eta gütiago. Hola ikusirik geroa oso beltza dügu...»</i>(7). Besterik ez. Irakaskuntza eredu hori emendatzen da eta aurrerapena litzateke familian mintzatzen balira. Haurrek oren batekin astean euskara ez dute ikasten ahal, hori dudarik gabe.

Opzioa kolegioan ere bada, hiru tokitan: Mauleko Argia kolegioan berriz, Atharratze kolegio publikoan eta Mauleko kolegio katolikoan. Orotara ikasleak 132 dira. Ehunetakoa handiagoa da beraz, % 23,15, bainan erran dugun bezala bi edo hiru orenekin astean ikaslea ez da ontsa mintzatzen euskaraz familian ez bada erabilia.

****Irakas baldintzak eta oztopo orokorrak****

Azken zati honetan irakaskuntza baldintzak eta oztopo nagusienak aztertuko ditugu. Gorago D ereduaren oztopo propioak gogoratu ditugu.

- **Gizarte eskaera eta Hezkuntza ministeritzaren erantzuna**

<i>«Frantzian, herri hizkuntzen legedian, baldintza nagusia gurasoen eskaera «frogatua» da. Gurasoek euskararen ikaskuntza eskatzen badiote eskolako zuzendariari, honek zerbait egiteko baimena badu legearen arabera»</i> nabaritzen du Erramun Bachoc irakaskuntza publikoaz (Bachoc etab., 2003: 55). Bai, bainan gero bidea luzea da ikasgela bat ideki baino lehen eta zepoz beterik. 15 haur behar dira gutienez, eskolako kontseiluaren baimena (irakasle bat baizik baldin bada aurka, ez da idekiko), Ministeritzak erran dezake ez duela lanposturik diru eskasarengatik edo irakasle formatuaren eskasarengatik. Beraz biziki zaila da.

Seaskako ikastolendako idekitzeko baldintzak ez dira berak, bizpalau hurrekin ere ideki daiteke eskola berri bat bainan laguntza publikorik gabe.

- **Irakaslegoa: lan postu eskasaz**

<i>«Alde batetik, dauden irakasleak gutiegi dira gizarte eskaerari erantzuteko. Beraz, lanpostuak ireki behar dira. Baina Hezkuntza Ministeritzak erabiltzen duen kota sisteman,

postu bat irekitzean beste bat ixtea dakar»</i> azpimarratzen du Bachocek (Bachoc etab., 2003: 56). Sare katolikoan adibidez lanposturik ez dute lortu aurten Hezkuntza ministrizatik eta beraz gela elebidunarendako postu bat idekitzeko, Zuberoakoa, behar ukan zuten beste frantses eredu gela bat itxi.

Aurten bereziki Frantses estatuak deliberatu du ministeritza oroetan gastuak gutitu behar zituela eta beraz euskara irakasle lanpostu bat idekitzen badu, beste gai irakasle lanpostu bat kentzen du. Ondorioz euskara irakasten ez duten irakasleak euskararen irakaskuntzaren aurkakoak bilakatzen dira. Beraz gurasoen galdera gero eta gehiago emendatzen da baina Hezkuntza ministeritzak erantzuten du bi urteko haurrak ez direla hartu behar ama-eskolan, edo irakasle ongi prestaturik ez duela euskara irakasteko, edo ez dela lanpostu berririk...

Maite Oxandabaratz irakasleak galdetzen du eskola elebidunean sartzen ahal ez diren ikasle berriei buruz: <i>«Eskolan abiatzean ez baldin badira gela elebidunetan sartzen, nora joanen dira? Frantses geletan hasi, eta ondoko urtean sustatuko ote dute elebidun sarea? Gurasoak ez al dira lotsatuko?»</i> (Bachoc etab., 2003: 52-53). Ikusten duzuen bezala oztoporik ez dela faltatzen eta beraz euskararen irakaskuntza ez da garatzen behar daiteken bezala.

- ****Erakasleen prestakuntza eta pedagogia laguntza****

Orain arte euskararen irakasleen formakuntza Pauen dago, Biarnon, eta ez da aski irakaslegairik. Erramun Bachocek hori aitzinatzen du: <i>«Aterabide logikoa litzateke Hegoaldeko irakasleak kontratazea, alde bateko soberakinarekin beste aldeko eskas osatzeko, erizainekin egin den bezala. Ez ministeritza, ez eta irakasle sindikatuak ez daude prest aterabide hori onartzeko»</i> (Bachoc etab., 2003: 56). Alsazian hola egiten da: Alemaniako alemaneraren irakasle zenbait etortzen dira hizkuntza irakastera irakasle alsaziarren faltarengatik.

Bainan Zuberoan beste zailtasun bat bada, pedagogia laguntza ahula dena, hori Zuberoaren urruntasunarengatik. Euskararen irakaskuntza ikuskaria Lapurdin, Donibane Lohitzunen, zen aurten, kostaldean beraz, eta pedagogia aholkulariak bekan etortzen dira Zuberoara. Irakasleak bakarrak senditzen dira edo ziren, zeren eta emeki emeki euskararen irakaskuntzaren garapenarekin gero gehiago aholku eta materiala trukatzeko dituzte, gero eta gehiago laguntzen dira. Bainan oraino beren lanarengatik, orduko lehentasunarengatik guti elkar ikusten dutela azpimarratu behar da. Prestakuntza ikastaldiak bekan dira eta hizkuntza irakasteko metodologia eurek asmatzen dute lan egitean.

- ****Eskolarako pedagogia tresna urriak****

Eskolako egitarauak nazionalak dira Frantzian, D modeloan ere, eta azpimarratu behar da Hegoaldekoak ez direla egokituak Iparraldean. Beraz erakasleek ez dituzte baliatzen ahal Hegoaldeko pedagogia tresnetarik gehienak. Orduan beren material diadaktikoa eurek asmatzen zuten; frantses liburuak, albumak, ikasle fitxategiak itzultzen zituzten. Bainan bigarren atalean erran dugun bezala emeki emeki lehen liburu berriak sortzen dira, bereziki Ikas Pedagogia Zentroari esker.

Zubereraren irakaskuntzak oztopo bat gehiago badu. Iparraldean eginak diren pedagogia tresna gehienak ipar batuaz idatziak dira, erran nahi du Iparraldeko lexikoarekilako euskara batu batez, eta itzulpen zuberotarrak urriak direlarik. Ikasek argitaratu eta zubereratu dituen

pedagogia tresnak matematikazkoak dira: **Matematikak lantzen** 1., 2. eta 3. (CP, CE1 eta CE2) urteetako fitxategiak, frantsesetik itzulia (Retz argitaletxea). Gero **Irakurgaiak 3. zikloa** liburuan testu zuberotar batzu badira, janariari buruzko **Hiztegiaren ikasteko afitxak** zubereratuak dira ere: barazkiak, fruituak, haragia, arrainkia, edariak, gozoak eta mahaiko gaiak. Eta ez da beste tresnarik.

Zorionez informatikari esker zubererazko pedagogia dokumentu gehiago aurki genezake, hori Ikasen webgunean: www.ikas.org. Bukatzeko aipa dezagun ere zubererazko CD-Rom bat erakasleentzat: *****Munduaren ezagutza***** saileko fitxak (*<i>Denbora eta espazioa, Astronomia, Ingurumena</i>*).

- *****Lehen mailatik kolegiarako jarraipen ahula*****

Hori da beste zailtasuna. Lehen mailatik kolegiara joaiten direlarik, haurrek euskararen ikastea uzten dute. Bigarren mailarako jarraipena ahula da. Iduri du kolegioko ikasketak garrantzitsuagoak bilakatzen direla gurasoentzat lehen mailakoak baino, eta beraz euskararen ikastea traba bat litzatekeela edo bederen soberakin bat.

- *****Euskararen gaitasuna eta mintzatzeko aukerak*****

Maite Oxandabaratz erraiten du *<i>«Urtero, ebaluaketa batzuk egin arazten ditugu, euskararen maila neurtzeko 8-9 urteko haurrei. Ohartu gara, adin horretan ulermen ona dutela, baina ahozko ekoizpen guti dutela; eta bistan dena, are gutiago beraz idatzizko ekoizpenetan... Gure ikasleek ez dute euskararen erabiltzeko edo entzuteko paradarik eskolatik kanpo. Behar diegu, beraz, euskara gehiago eskaini»</i>* (in Bachoc etab., 2003: 53).

Hortan ere beste desafio bat badago. Eta beraz Zuberoan ere, deus ere ez baitzen eskolatik kanpo eta bai eskolaren barnean, euskara erabiltzeko aukerak eskaintzen enseatzten dira gero eta gehiago: ipuina Mauleko liburutegian, bertsularitza, antzerkigintza, kantua.

Maulen adibidez haur euskaldunik ez da bat ere, eta beraz irakasleek zuberera erakasten baizik ez dute, batua baztertuz. Baserrian toki euskaldunetan edo haur euskaldunekin batua sararrazten dute lehen mailan ere, haurrek beren euskara eta batua konpara ditzaten, Euskal Herri osoan algar ulertzeko egokia den tresna menpera dezaten pixka bat. Euskaldun ez diren tokietan lehentasuna da haurrek zuberera konpreni dezaketela, mintza baino, euskara maita dezaketela. Elebidun orekatuak bilaka daitezten ez da helburua, helburu hau hunkigarria ez delakotz.

*****Ondorioa: zubereraren geroaz*****

*****Barneko bilakaera, hizkuntzarena*****

Deus egin gabe ere, zuberera berdintzen da eta batuari hurbiltzen ari da. Oraiko garraibideen eraginek, euskaldunen arteko harremanen eraginek alde batetik eta hedabide modernoek eraginek kanpoko euskara sarrarazten da Zuberoan, eta ber denboran ere

zuberera berdintzen ari da. Koldo Zuazok nabaritzen du: <i>«Gaur egungo hedabideei esker, geure etxetik irten gabe entzun dezakegu edozein alderditako euskaldunen solasa. Ezbairik gabe, euskara batzea eta berdintzea ekarri du aldakuntza giroak»</i> (2003: 13).

Ondorioz, nahi ala ez, oraiko hiztun zuberotarra gero eta gehiago elehirudun bilakatuko da. Triglossia berezi bat sortzen da, zuberera, frantsesa eta batua edo ipar batuarekin. Zuberera, biarnesera eta frantsesa ziren lehenago triglossia egiten zuten hizkuntzak. Ez baldin bada ongi mintzatuko batuaz, oraiko zuberotarrak ulertuko du eta bai ere beste euskalki hedatuenak, batez ere nafar-lapurtarra.

Batua zubereraren lexikoan sartzen baldin bada ere, ez dut uste euskara batuak zubereraren fonologia, morfologia eta sintaxia behar dituela manatu ; baina ez dakigu zer gertatuko den.

****Kanpoko bilakaera : zubereraren ezagutza eta erabilera****

Zuberoako euskaldunen kopurua eten gabe behera doa. Hori ez da euskara batuaren falta, Jean-Louis Davantek erraiten zuen bezala. Frantsesaren eraginaren falta da eta beste ikuspegi batez zuberotarren falta bai ere. Azken puntu horri buruz aipatu nahi nuke Jesus Mari Makatzagak erran duena 2000/03/08aren <i>Egunkaria</i>n: <i>«Adineko jendea da, alfabetatugabea izanik ere, euskaldunberriei eta gazteei euskara irakatsi behar diena eta ez alderantziz, sarritan gertazen den bezala»</i>. Zuberoan zuberera da belaunaldien arteko zubia egiten eta eginen duena, eta ez batua.

Amaieran esan dezakegu zubereraren geroa ez dela bat ere segurtatua. Lehen familia transmisioak mendez mende euskararen jarraipena segurtatzen zuen. Orain euskararen irakaskuntzak ez du familia transmisioak bezala euskara biziaraziko. Hala ere irakaskuntzaren garapena baldintza baitezpadakoa da zuberera zaintzeko eta irakaskuntzaren garapenak itxaropen dirdira ekarten digute, jakinez gaitasuna erabilera ez dela. Horretan ere Zuberoako hiztunek, euskaltzaleek lan asko badute. Zubereraren berreskuratze prozesuan bidea luzea izanen da.

****Bibliografia****

- AIRE Xole, ERREKARTE Margaita, LACO Martta, PETUYA Alazne, ETXEBARRIA Guillermo, 2001, Euskalkien trataera Iparraldeko ikastoletan, <i>Euskalkia eta hezkuntza</i>, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbao, 29-43.
- BACHOC Erramun, OXANDABARATZ Maite, ESTEBAN Mixel, IBARBOURE Pantxika, MAITIA Pantxika, 2003, Euskal irakaskuntza Ipar Euskal Herrian, Hezkuntza mundua eta hizkuntza berreskurapena, <i>Bat Soziolinguistika aldizkaria</i>, 49, Andoain, Euskal Soziolinguistika Institutua, 49-59.
- CASENAVE-HARIGILE Junes, 2000, <i>Xiberoan Euskaraz – Méthode de Basque souletin</i>, Maule, Sü Azia.

- CASENAIVE-HARIGILE Junes,1989, <i>Hiztegia Français-Eüskara</i> Züberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Züberoa), Hitzak.
- CASENAIVE-HARIGILE Junes,1993, <i>Hiztegia II Eüskara-Français</i>, Xiberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Xiberoa), Hitzak.
- COYOS Jean-Baptiste, 1997, Pour une évaluation des critères internes de fragilisation d'une langue: le cas du basque souletin, *F.L.V.*, 75, Iruñea / Pamplona, Institución Principe de Viana, 233-240.
- COYOS Jean-Baptiste, 1999, <i>Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l'ergativité</i>, Paris, L'Harmattan argitaletxea.
- COYOS Jean-Baptiste, 2001, Souletin et batua: pour un duo plutôt qu'un duel, <i>Madeleine de Jauréguiberry Omenaldia – Hommage</i>, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 77-84.
- COYOS Jean-Baptiste, 2002, Zubereraren idazkeraz : fonetika, fonologia eta ortografia, <i>Lapurdum</i>, VII, Baiona, IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Taldea – UMR 5478, 201-219.
- DAVANT Jean-Louis, 1993, Zuberera, zinez eri, <i>Argia</i>, 1441.alea, 1993/06/27, 41.
- DAVANT Jean-Louis, 1996, Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean, <i>Euskera</i>, Bilbo, 41-42, 531-539.
- DAVANT Jean-Louis, 1999, Züberera eta batua, <i>Herria</i>, 1999/12/16, Baiona.
- DAVANT Jean-Louis, 2000, Euskarak zirt edo zart egin behar du, <i>Argia</i> On Line, 1768.alea, 2000/07/02.
- <i>EUSKALTZAINDIA</i>, 1979, Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak Euskaltzaindiaren agiriak, <i>Euskera</i>, XXIV (2. aldia) - 1, Bilbo, 101-106.
- <i>EUSKALTZAINDIA</i>,1999, Zuberera, <i>Euskal Herriko Hizkuntz Atlas : Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia</i>, Bilbo, 166-186 + IV. CD-a.
- <i>EUSKALTZAINDIA</i>,2004/03/26, Adierazpena - Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan, "euskaltzaindia.net":<http://www.euskaltzaindia.net>.
- <i>EUSKO JAURLARITZA</i>, 2003, <i>Euskararen Jarraipena III, Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001, Iparraldea</i>, "euskadi.net":<http://www.euskadi.net/euskara>
- HEGUY Txomin,1991, <i>Etat de la langue basque dans les 3 provinces (Labourd, Basse-Navarre et Soule, Enquête socio-linguistique 1991</i>, lekurik gabe, polikopiatua, 16 orr.

- MAKATZAGA Jesus Mari, 2000, Euskalkien etorkizuna, <i>Egunkaria</i>, 2000/03/08.
- PEILLEN KARRIKABURU Txomin, 1992, Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk, <i>Nazioarteko dialektologia biltzarra, Iker,</i> 7, Bilbo, Euskaltzaindia, 247-272.
- PEILLEN KARRIKABURU Txomin, 2001, <i>Agur Zuberoa</i>, Urretxu-Zumarraga, Itxaropena, Zarautz.
- <i>SŪ AZIA</i> - Association de promotion de la langue basque en Soule, 1989, <i>Enquête socio-linguistique sur l'état de la langue basque dans les provinces de Soule (juin 1987) Basse-Navarre (avril-juin 1988) Labourd Intérieur (avril-juin 1988)</i>, [sans lieu], polikopiatua.
- ZUAZO Koldo, 1989, Zubereraren sailkapenerako, <i>A.S.J.U.</i>, XXIII, 2, Donostia / San Sebastián, 609-650.
- ZUAZO Koldo, 1998, Euskalkiak, gaur, <i>F.L.V.</i>, 78, Iruñea / Pamplona, Gobierno de Navarra, 191-233.
- ZUAZO Koldo, 2003, Euskara zuberotarra, <i>Euskalkiak Herriaren lekukoak</i>, Donostia, Elkar, 29-41.

****Webguneak****

ETXEGORRI Philippe, "Ekialdeko webgunea : Zuberoa":<http://membres.lycos.fr/petxegorri>
 <i>Ekialdeko webgunea: Zuberoa</i> Zuberoa eta zubererari buruzko webgune pertsonal aberatsa, web loturak eta fitxategia.

IKAS EUSKAL PEDAGOGIA ZERBITZUA, "ikas.org":<http://www.ikas.org/index.html>
 Zubererazko ikastresna batzu.

PAYS DE SOULE, - "paysdesoule.com":<http://www.paysdesoule.com> <i>Pays de Soule Xiberoa</i> Webgune orokorra frantsesez.

****Oin-oharrak****

(1)Esker beroenak emaiten dizkiet lagundu nauten irakasle oroei, Maite Aguer, Mixel Etxekopar, Odette Mohorade, Jakes Sarrailet, Jean-Claude Séhabiague, eta Argia kolegioko zuzendariari.

(2)Euskaltzaindiak 1999ko irailean herri eta herritarren izen idatziak finkatu ditu : *Zuberoako herri eta herritarren izendegia, Euskera*, Bilbo.

(3)Des occlusives aspirées en basque, *La Linguistique*, 1994, 30, 2, Paris, Presses Universitaires de France, 131-138.


(4)Lafonek zion : « En basque, à la sonore s'oppose, suivant les parlers et les mots une sourde aspirée ou une sourde non aspirée : jamais les deux... les occlusives sourdes aspirées et les

sourdes non aspirées ne constituent pas des phonèmes, mais des variantes phonétiques » (Remarques sur l'aspiration en basque, *Mélanges offerts à M. le Professeur Henri Gavel*, 1948, Toulouse, Edourd Privat et Cie : 60). Mitxelenak erran lezake : « Tenemos pues el hecho teóricamente interesante de un rasgo que reúne todas las condiciones necesarias para diferenciar significados, sólo que al parecer distingue ninguno » (*Fonética Histórica Vasca*, 1961 – 1985, 3a. edicion, San Sebastián, Diputación Foral de Guipúzcoa, Publicaciones del Seminario "Julio de Urquijo" : 208, 2. oharra).

[\(5\)](#) Adibide hori Irantzu Epeldereren tesian hartua da (*Larresoroko euskara*, 2003ko tesia: 33).

[\(6\)](#) Zuberoako emaitzak : Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren *Berripapera* 145 zenb., 2004ko ekaina, 3 orr.

[\(7\)](#)¹ 2004/06/29ko gutuna.

	http://www.erabili.com/zer_berri/argazkiak/inprimatzeko.gif
	http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1099898258/inprimatzeko